

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZUIAKO UDALA

Zerbitzuak eman eta jarduerak egiteagatiko prezio publikoak arautzen duen zerga ordenantza behin betiko onartzea

Ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu 2026ko zerbitzuak eman eta jarduerak egiteagatiko prezio publikoak arautzen duen zerga ordenantzaren aldaketari behin-behineko onarpena ematen dion erabakiari; beraz, behin betiko onartzen da, eta oso-osorik ematen da argitara.

Ordenantza behin betiko onartzeko erabakiaren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, jurisdikzioarenak, ezartzen duenari jarraituz, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazio Auzietarako Salan. Horretarako, bi hilabeteko epea izango da, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Murgian, 2025eko azaroaren 12an

Alkate-lehendakaria

UNAI GUTIÉRREZ URKIZA

ZERBITZUAK EMAN ETA JARDUERAK EGITEAGATIKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

1. artikulua

Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen 41/1989 Foru Arauak (ondoren azaroaren 23ko 33/1998 Foru Arauak aldatu zuen) xedatzen duenari jarraituz, udal honek ordenantza honen eranskinean ageri diren zerbitzu publikoak eskaintzeagatik eta administrazio jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko prezio publikoak ezarri eta exijitzen ditu, ordenantza honen arabera; prezio publiko horiek ere ordenantza honen zati dira.

2. artikulua

Ordenantza hau Zuiako udalerri osoan aplikatuko da.

3. artikulua

Ordenantza honetan araututako prezio publikoak zerbitzuetatik edo jardueretatik etekina ateratzen dutenek ordaindu beharko dituzte.

4. artikulua

Ordenantza honetako prezio publikoen tarifak eranskinean jasotzen dira.

5. artikulua

Eskatutako edo egindako zerbitzu edo jarduera bakoitzeko ordaindu beharko dira kopuru horiek, eta ezin izango dira murriztu epigrafeetan jasotako zenbatekoak.

6. artikulua

Ordenantza honetan jasotzen diren udal zerbitzu horiek jasotzeko edo jarduerak egiteko, aldeztu aurretik Zuiako Udalari eskatu beharko zaio zerbitzuak eman emateko edo jarduerak egiteko. Edonola ere, zerbitzu horiek emanda daudela eta jarduerak eginda daudela ulertuko da ordenantza honetan araututako prezio publikoen baldintzapean, eta luzatu ondoren; prezio publikoa ordaintzen ez bada, zerbitzua ez da emango edo jarduera ez da egingo.

7. artikulua

Ordenantza honetan araututako prezio publikoak ordaindu beharra zerbitzua jasotzen hasten den unean edo jarduera hasten den unean sortuko da.

Hala ere, emandako zerbitzuen edo egindako jardueren kasuan, eta luzatutakoetan, ordaindu beharra tarifa bakoitza ordaintzeko epe naturalari dagokion lehenengo egunean sortzen da.

8. artikulua

Honela ordainduko dira prezio publiko horiek:

a) Zerbitzuak ematea edo jarduerak egitea denean, erabiltzaileek adierazitako gutxienezko zenbatekoaren ordainketa egingo dute zuzenean udal kutxetan dirua sartuz, zerbitzua eman aurretik edo jarduera egin aurretik.

b) Zerbitzuen edo jardueren izaera dela eta, dirua aurretik sartu ezin denean, Zuiako Udalak dagokion ordainagiria aurkezten duen unean.

c) Urtero ordaindu beharreko zerbitzuei eta jarduerari dagokienean, urtero egiten diren prezio publikoen zerrendan sartu ondoren.

9. artikulua

Dagokion zenbatekoa itzuliko da, prezio publikoa ordaintzeko obligazioa duenari egotz ezin dakizkiokeen arrazoiak direla-eta lagapena egin ezin denean.

10. artikulua

Prezio publiko horiek ez ordaintzeagatik eragindako zorrak premiamendu bidez eskatu ahal izango dira.

11. artikulua

Hobariak kuotetan: jardueren erabiltzaileek urriaren 1a baino lehen eskatu ahal izango dituzte jarraian zehazten diren hobariak, kide diren familia-unitatearen diru-sarreraren arabera:

— Ehuneko 75, diru-sarrerak lanbide arteko gutxieneko soldatarenak edo hortik beherakoak direnean.

— Ehuneko 50, diru-sarrerak lanbide arteko gutxieneko soldataren eta gutxieneko soldata hori 1,2tik biderkatzearen ondoriozko emaitzaren artekoak direnean.

— Ehuneko 30, diru-sarrerak lanbide arteko gutxieneko soldata 1,2tik eta 1,4tik biderkatzearen ondoriozko emaitzen artekoak direnean.

Guraso bakarreko familien kasuan, hobari horiei ehuneko 10eko igoera gehituko zaie.

Azken xedapena

Ordenantza fiskal honen azken aldaketa 2025eko azaroaren 12an onartu zen behin betiko; 2026ko urtarilaren 1ean jarriko da indarrean, eta indarrean jarraituko du espresuki aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.

Eranskina**1. UDALAREN KIROL-INSTALAZIOAK.****1.1. Instalazioaren ongariari dagokionez.****1.1.a) Udalaren Palatu izeneko kirol instalazioen edo udalaren kirol instalazioen abonatua.**

Hona kuotak:

ONGARRIA	KUOTA
Familiarra*	70,00 euro
DSBE jasotzen duen familia*	35,00 euro
25 urtetik gorako pertsonak	30,00 euro
Urte horretan 24 urte bete arte 3 urte bete dituen pertsona (KKII erregelamenduaren 5. artikulua arabera)	15,00 euro
18.000 € edo gutxiagoko diru-sarrerak dituzten erretiratuak	
% 65eko edo gehiagoko minusbalotasuna duen pertsona	
DSBE jasotzen duen pertsona	
Beste abonatu-txartel bat egitea galdu izanaren, edo gaizki erabiltzeagatik	5,00 euro

Familiaren ordainketa etxebizitza berean bizi diren pertsona guztiei egin ahal izango zaie, baldin eta 25 urte arte ezkondua badaude edo izatezko bikotea osatzen badute eta lehen mailako ondorengoak badira, betiere emantzipatuta ez badaude eta diru-sarrerarik ez badute (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpenaren ondorioetarako). Era berean, familia-ordainketa guraso bakarreko familiei eta 25 urtetik beherako pertsonen legezko tutoretza duten pertsonen egin ahal izango zaie, betiere emantzipatuta ez badaude eta diru-sarrerarik ez badute (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpenaren ondorioetarako).

1.1.b) Palatu kiroldegiko abonatu ez diren erabiltzaileak:

— Udako denboraldian kiroldegi horretarako sarrera, egun osorako, honakoa ordainduko dute sarreran:

a) 3 urte eta 24 urte bitarteko pertsona, uneko urtean beteak: 3,00 euro.

b) 25 urteak bete eta gorako pertsonak: 7,00 euro.

— Udako denboraldian ustekabeko erabiltzaileak kirol-esparrura sartzeagatik, 17:00etatik aurrera, honakoa ordainduko dute sarreran:

a) 3 urte eta 24 urte bitarteko pertsona, uneko urtean beteak: 1,50 euro.

b) 25 urteak bete eta gorako pertsonak: 3,50 euro.

Aurreko bi epigrafeek jasotako kuotak ordainduz gero, igerilekuak, aldagelak eta ordaindu behar ez diren beste zerbitzu guztiak erabili ahal izango dira.

1.1. Kirol-instalazioen erabilera.**1.2.a) Jai Alai pilotalekua eta tenis-pistak (ordubete):**

— Abonatuak: 3,00 euro orduko.

— Abonatu gabeak: 5,00 euro orduko.

1.2.b) Palatu pilotalekua:

— Ordubete abonatuentzat: 7,00 euro.

— Ordubete abonatuak ez direnentzat: 14,00 euro.

— Argia: 5,00 euro, alokatutako denbora osoarengatik.

Astelehenetik ostiralera 11:00etatik 17:00etara erabiltzen denean, jaiegunetan izan ezik:

- Abonatuak: 5,00 euro.
- Ez abonatuak: 8,50 euro orduko.
- Argia: 3,00 euro, alokatutako denbora osoarengatik.

1.2.c) Futbol-zelaia (ordubete):

• Futbol-zelai osoa:

- Abonatuak: 6,00 euro.
- Abonatu gabeak: 12,00 euro.
- Argia: 7,00 euro, alokatutako denbora osoarengatik.

• Zelai erdia:

- Abonatuak: 3,00 euro.
- Abonatu gabeak: 6,00 euro.
- Argia: 3,00 euro, alokatutako denbora osoarengatik.

Abonatu gisa hartuko dira guztiak, baldin eta gorako aipatutako kirol instalazioak (pilotalekua, kirol askotarako pista, futbol-zelaia eta tenis-pista) batera erabiltzean erabiltzaileen erdiak gutxienez abonatuak badira.

1.3. Sauna.

a) Abonatuak:

- Saioa (saio 1): 7,00 euro.
- 4 saioko bonua: 25,00 euro.

b) Abonatu gabeak:

- Saioa (saio 1): 10,00 euro.
- 4 saioko bonua: 36,00 euro.

Bonuak hiru hilabeterako balioko dute, gehienez ere, ematen diren egunetik aurrera. Epe hori pasatu ondoren, iraungita geratuko dira; beraz, indarrik gabe geratuko dira eta ezin izango dira erabili.

1.4. Giharketa aretoa.

a) Abonatuak:

- Hilekoa: 23,00 euro.
- Hiruhilekoa: 57,00 euro.

b) Abonatu gabeak:

- Hilekoa: 35,00 euro.
- Hiruhilekoa: 85,00 euro.

Eguneko sarrerekin sartzeko aukera egongo da: 2,00 euro eguneko.

1.5. Kirol jarduerak ez direnetarako erabiltzea:

Kiroldegia kirol jarduerak ez direnetarako erabiltzeagatik: 1.451,25 euro egunean.

Udalerriarentzat bereziki interesgarriak diren hainbat jazoeratarako ehuneko 100era arteko salbuespena ezartzen da.

1.6. Boulder-eskalada murrua:

	ABONATUA	ABONATU GABEA
Eguneko sarrera	1,20 euro	1,75 euro
Hiru hileko bonoa	11,55 euro	17,40 euro
Materiala alokatzea	1,20 euro	1,75 euro
Argia	2,60 euro orduko edo zatiki bakoitzeko	

Instalazioa gehienez ere bi orduz erabiliko da.

a) Erabiltzeko moduak:

• Askatasunez:

— Rokodromoa eta boulderra libreki erabili ahal izango dituzte (dagokion kuota ordaindu ondoren) arduradunaren aurrean eskalada behar bezala menderatzen dutela egiaztatzen duten pertsonak. Erabilera hori errazteko, hastapen-ikastaroak emango dira.

— Hasi gabeko erabiltzailea boulderra erabiltzera mugatu beharko da.

— Boulderra eta rokodromoa kiroldegiko beste kirol batzuekin bateraezina ez den bitartean erabiliko dira. Alde horretatik, bateraezina da kantxa osoa areto-futboleko jokatzeko alokatzea.

• Ikastaroak: Instalazioak kudeatzeko esleipena duen enpresak edo Zuiako Mendi Taldeak eskalada hasteko ikastaroak eman ahal izango dituzte (bi kasuetan, udalarekin adostu ondoren).

b) Erabilera-arau orokorrak:

• Boulderrera edo rokodromora sartzeko, instalazioko arduradunarengana jo beharko da; arropa egokiarekin eta eskalada egiteko behar den materialarekin joan beharko da. Ezin da ezer utzi boulderraren eta rokodromoaren oinean.

• Boulderra eta rokodromoa erabiltzeko gutxienezko adina 14 urtekoa da. Adingabeek heldu batekin bakarrik egin dezakete.

• Rokodromoan nahitaezkoa da “Gri-gri” eta “zortzi” erabiltzea, ziurtatzeko modu gisa.

• Debekatuta dago boulderreko eta rokodromoko elementuak aldatzea (presak, sokak, koltxonetak) arduradunaren baimenik gabe.

• Ez da jokabide edo eskalada ausartegirik onartuko.

• Ezin izango dira aldi berean bi pertsona baino gehiago egon boulderrean nahiz rokodromoan.

• Hemen jaso ez diren kasuak eta egoerak udaleko kirol-zinegotziak ebaluatuko ditu, kirol-instalazioen arduradunekin batera.

1.7. Eskola-taldeak, elkarten edo bestelako erakundeak erabilera.

Pertsona bakoitzeko 2,00 euro kobratuko dira kirol-instalazioak udako denboralditik kanpo eta igerilekuetan sartu eta erabiltzeko.

1.8. Abonatu gabekoak:

Ordaindu gabeko pertsona batek dutxa erabiltzeko tarifa: 2,00 euro.

2. KIROL-JARDUERAK.

2.1 Araudia:

• Kirol-jardueretako ikastaroak (igeriketa eta uretako jarduerak izan ezik, gehienez ere hila-bete iraungo baitute) hiru hilean behin egingo dira, eta ezarritako prezioak hartuko dira aldizkakotasun horrekin.

- Prezioak udalaren kirol-instalazioetan abonua izatearen edo ez izatearen arabera bereizten dira.

- Udako hilabeteetan, abonatu gabeko pertsonak dagokien pasabidea lortu beharko dute edo eguneko sarrera ordaindu beharko dute ikastaroa ematen den aldian.

- “Ezagutu eta aprobetxatu parke bio-osasungarria” jarduerak 3,00 euroko prezioa izango du jarduera-egun bakoitzeko.

- Prezio publiko horiek indarrean dauden bitartean beste jardueraren bat sortzen bada, ordenantza honetan jasotako jardueren prezioa aplikatuko da.

2.1. Kirol ikastaroak:

ADIN TARTEA	1 EGUN		2 EGUN		3 EGUN	
	ABONATUAK	ABONATU GABEAK	ABONATUAK	ABONATU GABEAK	ABONATUAK	ABONATU GABEAK
Urtean 14 urte edo gutxiago betetzea	7,00 euro	12,00 euro	14,00 euro	24,00 euro	21,00 euro	36,00 euro
14 urte gorakoak	13,00 euro	22,00 euro	26,00 euro	44,00 euro	39,00 euro	66,00 euro

2.2. Tennis ikastaroak:

ADIN TARTEA	1 EGUN		2 EGUN		3 EGUN	
	ABONATUAK	ABONATU GABEAK	ABONATUAK	ABONATU GABEAK	ABONATUAK	ABONATU GABEAK
Urtean 14 urte edo gutxiago betetzea	20,00 euro	30,00 euro	40,00 euro	60,00 euro	60,00 euro	90,00 euro
14 urte gorakoak	25,00 euro	38,00 euro	50,00 euro	76,00 euro	75,00 euro	114,00 euro

2.3. Igeriketa eta uretako jarduerak.

- Abonatuak: 17,00 euro.
- Abonatu gabeko pertsonak: 25,00 euro.

3. UDALEKUAK.

— Abonatuak:

- 60,00 euro bi astez.
- 75,00 euro hiru aste.

— Ordaindu gabeko pertsonak:

- 120,00 euro, bi astez behin.
- 150,00 euro, hiru astetan.

4. MUSIKA ESKOLA. 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera.

4.1. Matrikula:

- 25 urtetik gorakoak: 120,00 euro.
- 24 urte bete arte, uneko urtean (biak barne): 100,00 euro.
- Erroldako hobaria: ehuneko 40.

4.2. Talde-diziplinak (hilabete 1):

- 25 urtetik gorakoak: 22,00 euro.
- Uneko urtean 24 urte bete arte: 14,00 euro.

4.3. Diziplina indibidualak (hilabete 1):

- 25 urtetik gorakoak: 30,00 euro.
- 24 urte bete arte, uneko urtean: 18,00 euro.

4.4. Taldeko bi diziplina gehi tresna (hilabete bat):

- 25 urtetik gorakoak: 60,00 euro.
- Uneko urtean 24 urte bete arte 36,00 euro.

5. IKUSKIZUNAK.

5.1. 1.000,00 euro baino gutxiagoko aurrekontua (BEZa barne) duten ikuskizunetara sartzeari doan.

5.2. 1.001,00 eta 3.000,00 euro arteko aurrekontua duten ikuskizunetarako sarrera (BEZa barne):

- 18 urtetik beherakoak: 3,00 euro.
- 18 urtetik gorakoak: 5,00 euro.
- Langabeak: 3,00 euro.

5.3. Ikuskizunetan sartzeari 3.001,00 eurotik gorako aurrekontuarekin (BEZa barne):

- 18 urtetik beherakoak: 7,00 euro.
- 18 urtetik gorakoak: 10,00 euro.
- Langabeak: 7,00 euro.

5.4. 15.000,00 eurotik gorako aurrekontua (BEZa barne) duten ikuskizun edo programetan sartzeari:

- 18 urtetik beherakoak: 10,00 euro.
- 18 urtetik gorakoak: 15,00 euro.
- Langabeak: 10,00 euro.

5.5. Bai edukiagatik, bai gauzatzeagatik interes berezikotzat jotzen diren ikuskizun eta programetan, prezio horiek ez aplikatzeko aukera (doakotasuna) aurreikusi ahal izango da, programazioaren arduradunek hala justifikatzen eta erabakitzen badute.

6. TAILERRAK EDO IKASTAROAK.

6.1. Materiala behar duten tailer edo ikastaroak, gehienez 500,00 euroko zenbatekoarekin:

- 18 urtetik beherakoak: 3,00 euro.
- 18 urtetik gorakoak: 5,00 euro.
- Langabeak: 3,00 euro.

6.2. 501,00 eurotik gorako materiala behar duten tailer edo ikastaroak:

- 18 urtetik beherakoak: 5,00 euro.
- 18 urtetik gorakoak: 10,00 euro.
- Langabeak: 5,00 euro.

7. KARGA ELEKTRIKOAREN PREZIO PUBLIKOA UDAL KARGAGUNEETAN.

7.1. Xedea:

Prezio publikoa ezartzen da ibilgailu elektrikoa udal-kargaguneetan kargatzeko interesa duten erabiltzaileei karga elektrikoa hornitzeko.

7.2. Zergapeko egitatea:

Zerga-egitatea argindarra kargatzeko zerbitzua ematea da, hau da, konexioa eta elektrizitate-kontsumoa, bai eta bide publikoaren erabilera eta beharrezko azpiegitura ere.

7.3. Subjektu pasiboa eta erantzulea:

Udal-kargaguneetan ibilgailu elektrikoen karga eskatu eta egiten duten erabiltzaileek ordaindu beharko dute.

Ibilgailuen jabeak izango dira erantzule subsidiarioak.

7.4. Zenbatekoa:

Deskarga-tarifa 0,20 €/ kWh izango da.

7.5. Salbuespenak:

Udal-jabetzako ibilgailuak salbuetsita daude ordaintzetik.

7.6. Sortzapena:

Zerbitzua eskuratzeko eskaera egiten den unean sortzen da prezio publikoa.

8. APROBETXAMENDU MIKOLOGIKOAREN PREZIO PUBLIKOA.

8.1. Xedea.

Udal honen titulartasuneko mendi publikoetan – Gorbeialdeko Parke Mikologikoan hitzarmen bidez integratutakoak – aprobetxamendu mikologikoa egiteko prezio publikoa ezartzen da, jarduera horrek baliabide mikologikoan eta haren habitatean dituen ondorio kaltegarriak ahalik eta gehien murrizteko.

8.2. Zergapeko egitatea.

Zergapeko egitatea da udal-titulartasuneko mendi publikoetan kontsumitzeko edo merkatu-ratzeko perretxikoak biltzea, Gorbeialdeko Parke Mikologikoan sartuta dauden Zuiako Udalaren onura publikoko mendietako aprobetxamendu mikologikoa arautzen duen ordenantzaren arabera.

8.3. Subjektu pasiboa eta erantzulea.

Prezio publiko honen subjektu pasiboak izango dira horretarako baimena lortzen duten pertsona fisikoak.

Prezio publiko honen subjektu pasibotzat hartuko dira azterketa mikologikoa egiteko xedea duten eta irabazi-asmorik ez duten elkarteak eta erakundeak, betiere Parke Mikologikoaren jarraipen-batzordeak berrikusitako baimen berezia badute.

8.4. Zenbatekoa:

- Eguneko baimena: 10,00 euro.
- Asteko baimena: 15,00 euro.
- Denboraldiko baimena: 50,00 euro.

8.5. Sortzapena.

Dagozkion baimenak eskatzen eta lortzen direnean sortuko da prezio publikoa.